

BERGARAKO UDALAREN ETA JARDUN EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA, JARDUNEN 2021EKO ZENBAIT EGITASMO DIRUZ LAGUNTZEKOA

Bergaran bi mila eta hogeita bateko urriaren 8an.

BILDURIK

Gorka Artola Alberdi jauna, Bergarako Udaleko alkatea, Bergarako Udalaren ordezkari izan da.

Eta bestetik, Miren Etxeberria Jauregi andrea, (NAN zkia: 72313638 M), Jardun kultur elkartearen lehendakaria, elkarte horren izenean. Azken honek alkate andrearen aurrean zinpean aitortu du bera eta berak ordezkatzeko duen elkarte ez daudela Estatuaren 2003ko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak aurreikusitako debeku kasuetan.

ADIERAZI DUTE:

- 1.- Azken urteetan bi entitateok Jardunen urteko egitasmoak diruz laguntzeko hitzarmena sinatu izan dutela.
- 2.- Hitzarmen horien balorazio positiboa eginaz, egoki eta komenigarritzat jotzen dutela hurrengo urteetarako hitzarmen berri bat egin eta Jardunek hizkuntza normalkuntzaren alorrean egiten duen lana sendotzea.
- 3.- Alkateak 2021eko urriaren 7an emandako Dekretu baten bitartez dirulaguntza eman eta bi aldeek betebeharrak hitzarmen batean jasotzea erabaki duela.

Hori dela eta, hitzarmen hau sinatzea erabaki dute.

HITZARMENA

1.- Euskararen normalkuntzaren bidean, Jardunek 2021ean antolatuko dituen zenbait jardueretarako dirulaguntzak zehaztea da hitzarmen honen helburua. Hitzarmenaren iraupena 2021eko abenduaren 31ra artekoa izango da. Edozein kasutan ere, 2022ko urte hasieran, artean beste hitzarmenik onartu barik balego, 2021eko kopuruaren arabera ordaintzen jarraituko da 2022ko aurrekontuaren kontura eta hitzarmen berria sinatzean egingo dira egin beharreko diru-doikuntzak.

2.- Hitzarmen honen bidez Jardunek aurkeztutako euskararen normalkuntzarako egitarauak subentzionatuko ditu Bergarako Udalak, beti ere Udalak berak aparteko hitzarmen edo kontratuen bidez finantzatzen dituen ekintzak (Udaleku Irekiak, Ludoteka, Etorikintzako errefortzuak eta Berriketan programa) kenduta. Egitarauaren gastu orokorra **119.892,00** eurokoa da 2021. urterako. Hitzarmen honen 1. eranskinean jasota dator dirulaguntzagai diren egitarauen aurrekontuaren azalpena.

3.- Egitarau horiek lantzeko, Udalak, 2021ean, 51.000 euroko dirulaguntza emango dio Jardun elkarteari Euskara batzordearen aurrekontutik.



4.- Jardun elkarteak egitasmo hauek ezagutarazteko erabiltzen duen edozein eratako publizitate eta propagandatan Begarako Udalaren laguntza duela adierazi beharko du argi.

5.- Dirulaguntza hau 12 zatitan ordainduko dio Udalak Jarduni.

6.- Hurrengo urteko lehen sei hilabeteen barruan egingo du Jardunek urteko gastuen zuriketa eta ekintzen memoriaren aurkezpena. Bestalde, hurrengo urteko amaiera baino lehen diru-kontuen auditoria ere aurkeztu beharko du.

Dena den, edozein momentutan ere Udalak eskubidea izango du Jardunen diru-kontuen berri jakiteko. Halaber, elkarteak sarrera eta gastuen faktura eta dokumentu original guztiak gutxienez lau urtean kontserbatuko ditu eta Begarako Udalak aztertu ahal izango ditu.


7.- Jardun elkarteak genero-ikuspegia txertatuko du antolatzen dituen ekintzetan, eta bereziki zainduko du komunikazio ez-sexista bideratzeko irizpideak aplikatzea. Aurkeztu beharreko ekintzen memorian, garbi jasoko du, zein neurri hartu diren horretarako: agendan, emakumearen presentzia bermatzerakoan, edukien trataeran... Aldi berean, Jarduneko langileen eta bazkideen artean, eta langileek beste pertsona batzuekin duten harremanetan berdintasunezko tratua egon dadin bermatu beharko du elkarteak, eta horrela ez den kasuetan bitartekaritza lanak egin eta beharrezko neurriak hartuko ditu.

8.- Jardunek hitzarmen honetan jasotakoak betetzen ez baditu hitzarmen hau bukatutzat emango da, ordura arte justifikatutako gastuen araberako laguntza eman ondoren.

9.- Dirulaguntza hauek beste entitate batzuek eman ditzaketenekin bateragarriak dira. Dena den, Udalak diruz lagundutako ekintzak burutzeko, beste dirulaguntzarik lortuz gero, berehala jakinarazi beharko dio Udalari eta edozein kasutan memoria aurkeztu baino lehen.

10.- Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, dirulaguntzak arautzen dituen 38/2003 Estatuko Legea, azaroaren 17koa, eta lege hau garatzen duen erregelamendua, 2006ko uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua, aplikatuko dira.

Eta horrela jasota uzteko eta euren adostasuna agertzeko, honako hitzarmen hau egin eta hasieran aitaturako toki-egunetan izenpetu dute bi parteek.



Miren Etxeberria Jauregi
Jardun euskara elkarteko presidentea



Gorka Artola Alberdi
Begarako alkatea



AURREKONTUA 2021

GASTUAK		SARRERAK	
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
PERTSONALA	77.042,00	BAZKIDETZA	17.615,00
Soldatak	58.552,00	BESTELAKOAK	500,00
Gizarte segurantza	18.490,00		
KULTURA	6.025,00	KULTURA	2.475,00
Hitzaldiak	150,00	Hitzaldiak	0,00
Amodiozko gutunak	2.500,00	Amodiozko gutunak	0,00
Bertso eskola	1.000,00	Bertso eskola	0,00
Antzerki eskola	2.300,00	Antzerki eskola	2.475,00
Postal lehiaketa	75,00	Postal lehiaketa	0,00
HAUR ETA GAZTEAK	350,00	HAUR ETA GAZTEAK	12.000,00
Txorimalo lehiaketa	50,00	Txorimalo lehiaketa	0,00
Errefortzuak	100,00	Errefortzuak	0,00
Kanpo zerbitzuak	200,00	Kanpo zerbitzuak	12.000,00
SENTSIBILIZAZIOA	7.000,00	SENTSIBILIZAZIOA	4.200,00
Euskaraldia/euskararen eguna	1.000,00	Euskaraldia/euskararen eguna	0,00
Kanpainak	800,00	Kanpainak	0,00
Bazkidekin harremana	2.600,00	Bazkidekin harremana	0,00
Jaixetako ekintzak	2.000,00	Jaixetako ekintzak	4.200,00
Euskal triviala	600,00	Euskal triviala	0,00
KANPO HARREMANAK	1.375,00	KANPO HARREMANAK	1.320,00
Goiena	55,00	Goiena	1.200,00
Topagunea	1.320,00	Topagunea	120,00
EGITURA	8.700,00	DIRULAGUNTZAK	73.000,00
Egitura gastuak	8.700,00	Udala	51.000,00
BESTELAKOAK	19.400,00	F.A.	10.000,00
Bestelako gastuak	19.400,00	E.J	12.000,00
GASTUAK GUZTIRA	119.892,00	SARRERAK GUZTIRA	111.110,00

EMAITZA 2021

-8.782,00